

TXOSTENA

Espedientea izapidetu ondoren, sinatzen duen instruktoreak ebazpen-proposamen hau egiten du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.7 artikuluan eta Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024

Zubikoa kiroldegiko zuzendaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.: 2024ZDKO0007

Interesdunak: AGUIRREBENGOA LIZARRALDE BEÑAT, BIKUÑA MARTINEZ
DE ZUATZO GORKA

Gaia: Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024

Sarrera erregistroak: 2024/5538 eta 2024/5709

AGUIRREBENGOA LIZARRALDE BEÑAT eta BIKUÑA MARTINEZ DE ZUATZO GORKA jaunak/andreak hasitako prozedura aztertu da.

Gertakariak:

Lehenengoa.-

Joan den ekainaren 6an Udal Tokiko Gobernu Batzordeak eginiko ohiko bilkuran ebatzi zituen kirol arloko 2024. urterako udal dirulaguntzak. Besteak beste, dirulaguntzen bigarren leerroari atxikita -Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeako dirulaguntzak- honako dirulaguntzak esleitu ziren:

- Eraun Torreauso Auzo-elkarteari 1.750 €, Torreausoko Krossa antolatzeagatik.
- Txantxiku Arkulariak Elkarteari 750 €, Basoko arkutiraketako XVI. San Miguel Saria, Gipuzkoako Ligako .jardunaldia, eta San Miguel jaietako erakustaldia antolatzeagatik.

Bigarrena.-

Aipaturiko elkarteek burutu dituztela aipaturiko kirol probak, eta eskatzaileek elkarteen izenean aurkeztu dituztela dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa, dirulaguntzen oinarri arautzaileetan eskatu bezala.

Hirugarrena.-

Kirol klubaren ordezkariak antolatu dituzten kirol proben honako likidazioak aurkeztu dituzte:

- Eraun Torreauso Auzo-elkartea: Torreauso Krossa
 - Gastuak: 8.911,04 €
 - Sarrerak: 7.160 €
 - Likidazioa: - 1.751,04 €

- Txantxiku Arkulariak Elkartea: XVI. San Miguel Saria – Gipuzkoako Open Ligako 3. Jardunaldia:

- Gastuak: 2.293,70 €
- Sarrerak: 895 €
- Likidazioa: - 1.398,70 €

- Txantxiku Arkulariak: San Migueleko Arku Tiraketa erakustaldia
 - Gastuak: 300 €
 - Sarrerak: 0
 - Likidazioa: -300 €

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.-

Eraun Torreauzo Auzo-elkarteak likidazio negatiboa aurkeztu du, alegia; 1.751,04 €-ko galera – Udalak esleitutako dirulaguntzaren diru-sarrera zenbatu gabe-. Ondorioz, elkarteari esleitutako dirulaguntzaren %40a jasotzea dagokio.

Bigarrena.-

Txantxiku Arkulariak Kirol Elkarateak likidazio negatiboa aurkeztu du, alegia; 1698,70 €-ko galera –Udalak esleitutako dirulaguntzaren diru-sarrera zenbatu gabe-. Ondorioz, elkarteari esleitutako dirulaguntzaren %40a jasotzea dagokio.

Proposamena:

Lehenengoa.-

Eraun Torreauzo Auzo-elkarteari dirulaguntzaren bigarren zatia, hots; %40a ordaintzea, 700 €, aurrekontuan izan duen galerari aurre egiten laguntzeko.

Bigarrena.-

Txantxiku Arkulariak Kirol Elkarateari dirulaguntzaren bigarren zatia, hots; %40a ordaintzea, 300 €, aurrekontuan izan duen galerari aurre egiten laguntzeko.

...Hirugarrena.-

1000 €ko gastua onartzea, 283 zenbakidun partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Laugarrena.- Erabaki hau interesdunei eta Kontuhartzaitza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan

Zubikoa kiroldegiko zuzendariak

